



4. DOKUMENTUA

FOTOKOPIAGAILU ETA PLANO-KOPIAGAILUENTZAKO PAPERA HORNITZEKO KONTRATUAREN PRESKRIPZIO TEKNIKO PARTIKULARREN AGIRIA

1. XEDEA

Honako Agiri honen xedea da fotokopiagailu eta plano-kopiagailuentzako papera hornitzeko kontratuak bete beharreko preskripzio teknikoak ezartzea, Partzuergoaren beharrak aintzat hartuta.

2. HORNIDURAREN KONDIZIO OROKORRAK

Parte-hartzaileek erreferentziazko zerbitzuak egiteko baldintzetan daudela frogatu beharko dute agirien bidez.

Materialen horniketak barne hartzen du materialak Partzuergoaren instalazioetan zuzenean entregatzea, jarraian zehaztutako lekuetan hain justu (biltegia, egoitza, eraikina edo solairua):

Bilbo

Erreprografia gela*

San Bizente kalea 8, Albia eraikina I, 1. solairua, Bilbo, 48001

Bezeroekiko Harremanetarako Bulegoaren biltegia*

San Bizente kalea 8, Albia eraikina I, sarrerako halla, Bilbo, 48001

Zuzendaritza Teknikoa / Kontratazioa / Gerentzia, euren bulegoetan*

San Bizente kalea 8, Albia eraikina I, 4. solairua, Bilbo, 48001

**Eraikinera eta bulegoetara merkantziak eramateko sarrera Isleta kalean dago (bertan dago karga-jasogailua)*

Udal Sareen Zuzendariordetzaren biltegia

Uribitarte kalea 8, 2. solairua, Bilbo, 48001

Kontu-hartzailetza eta Lurzoruaren Kudeaketako biltegia

Uribitarte kalea 8, 3. solairua, Bilbo, 48001

Informatika Zuzendariordetzaren biltegia

Uribitarte kalea 8, 4. solairua, Bilbo, 48001

Beteluriko EUT

Kontrolako eraikineko biltegia

Beteluriko EUT, Buia-Arrigorriaga errepidea zenbaki gabe, 48480 Arrigorriaga

Orrialdea: 1/4



Hornikuntza Laborategiko biltegia

Beteluriko EUT, Buia-Arrigorriaga errepidea zenbaki gabe, 48480 Arrigorriaga

Ustiapeneko bulegoetako biltegia

Ustiapeneko eta hornidurako eraikineko 1. solairua

Beteluriko EUT, Buia-Arrigorriaga errepidea zenbaki gabe, 48480 Arrigorriaga

Prebentzioko Departamentuaren biltegia

Ustiapeneko eta hornidurako eraikina

Beteluriko EUT, Buia-Arrigorriaga errepidea zenbaki gabe, 48480 Arrigorriaga

Galindoko HUA

Kontroleko eraikina / Laborategia, beheko solairua eta 1. solairua, biltegiak

Galindoko HUA, Jose Maisua kalea zenbaki gabe, 48910 Sestao

Eraikin industrialak, 3. solairua, biltegia

Galindoko HUA, Jose Maisua kalea zenbaki gabe, 48910 Sestao

Barakaldo

Bezeroekiko Harremanetarako Bulegoaren biltegia

Florida kalea 12, 48902 Barakaldo

Gernika

Bezeroekiko Harremanetarako Bulegoaren biltegia

Bekoibarra kalea 13, 1. solairua, Gernika 48300

Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoak, kontratuak irauten duen bitartean, entregak egiteko puntu berriak gehitu ahal izango ditu aipatu berri ditugun helbideetan kokatutako instalazioen barruan.

Entregatu beharreko kopuruak Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoak zehaztuko ditu; eskaria, pakete zenbakia, produktu mota, entrega-puntua eta entrega jaso behar duen pertsona zehaztuko ditu Partzuergoak, eta zehaztutako espezifikazioak betetzen ez dituzten sortak inolako ordainik gabe itzultzeko eskubidea izango du.

Agiri honetan zehaztutako materialak 48 orduko gehieneko epean entregatuko dira, eskatzen direnetik zenbatzen hasita.



3. ESKAINI BEHARREKO HORNIKUNTZEN EZAUGARRIAK

Honako hauek dira hornitu beharreko materialek izan behar dituzten ezaugarriak:

1. Plotter-papera

- Plotter-paper opakua izango da (Cad Ink-Jet): 0,914 x 50 m eta >100 gr/m².
- Kolorezko plotter-entzat: HP DesignJet 3200 edo antzekoak

Entregatzeko modua:

- Kartoizko bilgarriarekin.
- Paper-biribilkiak bilgarri iragazgaitza izan behar du.

2. “REPRO” papera zuri-beltzeko fotokopiagailuentzat (A mota)

- Gramajea (ISO 536): 75 eta 80 gr/m².
- Lodiera (ISO 534): 80 eta 110 micron artean.
- Zuritasuna (ISO 11475): 160 eta 168 CIE artean.
- Opakutasuna: % 90 eta % 95 artean.
- Leuntasuna-satinatzea: 100-150 Berkhn (n/min.)
- Hezetasun gradua: % 3,5 - % 4,5
- Paperaren mozketak: zuntzaren noranzkoan
- Ez da birziklatutako papera onartzen
- Kopiagailuak: Ineo 654, Ricoh 6500PS, Ricoh 8003...

Entregatzeko modua:

- Kartoizko bilgarriarekin (hainbat pakete elkarrekin jarrita).
- 250 edo 500 orriko paketeetan.
- Bilgarriak iragazgaitza izan behar du, eta barrutik polietilenoazko lamina batekin forratuta egon behar du orriak hezetasunetik babesteko.
- Lau aldeetatik ezin hobeto moztuta.

3. “REPRO” papera kolorezko fotokopiagailuentzat (B mota)

- Gramajea (ISO 536): 80, 90 eta 100 gr/m².
- Lodiera (ISO 534): 100 eta 110 micron artean.
- Zuritasuna (ISO 11475): 160 eta 168 CIE artean.
- Opakutasuna: % 90 eta % 95 artean.
- Leuntasuna-satinatzea: 100-150 Berkhn (n/min.)
- Hezetasun gradua: % 3,5 - % 4,5
- Paperaren mozketak: zuntzaren noranzkoan
- Ez da birziklatutako papera onartzen
- Kolorezko kopiagailuak, honako hauek bereziki: Xerox 2230, NGR DSC32, Ineo 654, Ricoh 6500PS, Ricoh 8003...



Entregatzeko modua:

- Kartoizko bilgarriarekin (hainbat pakete elkarrekin jarrita).
- 250 edo 500 orriko paketeetan.
- Bilgarriak iragazgaitza izan behar du, eta barrutik polietilenoazko lamina batekin forratuta egon behar du orriak hezetasunetik babesteko.
- Lau aldeetatik ezin hobeto moztuta.

4. Paper birziklatua C motako fotokopiagailuentzat:

- Gramajea (ISO 536): 80 gr/m².
- Zuritasuna (ISO 11475): 90 eta 168 CIE artean.
- Opakutasuna: % 80 eta % 95 artean
- Leuntasuna-satinatzea: 100-150 Berkhn (n/min.)
- Porositatea: 330 ml/min.
- Kopiagailuak: Xerox 2230, Nashuatec 8505, D445, dsc32, Lanier Id65, Id55...

Entregatzeko modua:

- Kartoizko bilgarriarekin (hainbat pakete elkarrekin jarrita).
- 250 edo 500 orriko paketeetan.
- Bilgarriak iragazgaitza izan behar du, eta barrutik polietilenoazko lamina batekin forratuta egon behar du orriak hezetasunetik babesteko.
- Lau aldeetatik ezin hobeto moztuta.

Bilbo, 2025eko martxoaren 1a

Erakunde Harremanetako eta Komunikazioko arduraduna

Janire Bijueska Bedialauneta